# La piscina de Betiondo se prevé abrir a partir de la segunda quincena del mes

**De momento, se espera a que asiente el césped, mientras el parking aledaño está a punto de abrirse al público**

**A. LASUEN**

ERMUA. El Ayuntamiento de Ermua prevé que la piscina de Betiondo se abra en la segunda quincena de junio. En la actualidad se trabaja en el asentamiento del terreno de estancia alrededor de la piscina, ya que el césped debe cortarse en, al menos, 3 ocasiones para poder ser utilizado posteriormente como zona de descanso. Por ello, la apertura de estas instalaciones dependerá de que brille el sol durante las próximas semanas.

Las personas abonadas a Ermua Kirolak tendrán entrada gratuita, mientras que las no abonadas deberán pagar 91,50 euros por el carnet. El bono para personas adultas costará 57,50 euros y el de menores será de 34,10 euros. La entrada puntual para el acceso a esta instalación pública costará 5,25 euros.

En este espacio deportivo y para el ocio, habrá una piscina de un solo vaso, de 666 metros cuadrados, que irá desde la cota cero hasta los 1,40 metros. En su totalidad la piscina tendrá un aforo de 1.121 personas. Además, se utilizarán los vestuarios de la zona deportiva cubierta de Betiondo.

### 142 plazas en el parking

Por otra parte, el aparcamiento aledaño de Betiondo, que tuvo que ser cerrado por las obras de la piscina, se encuentra también a pocos días de su apertura. Únicamente faltan por ejecutarse pequeños detalles en relación con la pintura y varios remates para que, en breve, pueda abrirse al público.

En cuanto se abra el parking al aire libre, que contará con 142 plazas para vehículos y estará vigilado por cámaras de seguridad, volverán a funcionar los dos carriles de dos sentidos de la vía contigua. Por este motivo no se permitirá aparcar en ellos.



La piscina se abrirá cuando se asiente el césped circundante. A. L.



Se ayudará a ascender a Urko a personas con movilidad reducida. ARTARRAI

# El I Memorial Javi Alberdi se celebra el próximo sábado

**La recaudación se destinará a la investigación de la enfermedad de Hugo y se subirá a Urko a personas con movilidad reducida**

**AINHOA LASUEN**

ERMUA. El próximo sábado se llevará a cabo el primer Memorial Solidario Javi Alberdi (Urko 12 horas Non Stop) en Ermua. Organizado por Artarrai e Hiru Txikiak Trail, se pretende convertir esta jornada en una fiesta donde se fusionen la solidaridad y la pasión por la montaña.

El reto se basa en realizar subidas a la cima de Urko, desde las 7.00 hasta las 18.30 horas, en grupos o en solitario, todas las veces posible. Para poder participar a la hora de inscribirse habrá que realizar una donación mínima de 2 euros por cada subida, y, así, conseguir, entre todas las personas participantes, el máximo de ascensiones al monte Urko, con el objetivo de recaudar la mayor cantidad de dinero posible para la investigación de la Encefalopatía Epiléptica y Desarrollo asociada al GEN SLC6A1, enfermedad de las denominadas raras que padece el niño ermuarra Hugo.

Por ello, el próximo sábado, a partir de las 6.30 horas, el club local de montaña Artarrai, junto con Hiru Txikiak Trail, estará en la plaza Patxi donde se podrán comprar los tickets solidarios. Una vez adquiridos, cada participante escribirá su nombre y teléfono en el dorso y lo depositará en la cima de Urko, en un buzón habilitado para la ocasión.

Las salidas se realizan desde la plaza Cardenal Orbe, cada hora, a partir de las 7.00, con la intención de agrupar a los participantes, que sea un acto más visible y facilitar diferentes horarios. No es necesario realizar la salida y la subida en grupo, cada participante podrá subir por cualquiera de las vertientes que tiene Urko. La última venta de tickets será a las 17.30 horas y se recogerán del buzón de la cumbre a las 18.30. El recuento y sorteo de diversos materiales entre las personas participantes será a las 19.30 horas. La entrega de premios se realizará junto con los actos que se desarrollan en el Txindurri Eguna. Habrá premio, para la montañera y montañero más solidario, que más subidas realice (un jamón para cada uno, junto con un lote de vinos y la visita a la bodega Luis Cañas en La Rioja).

### Homenaje a Javi Alberdi

La subida de las 10.00 horas será especial, ya que se llevará hasta la cima de Urko a varias personas con movilidad reducida, con la colaboración de las asociaciones Montes Solidarios, Ezina Ekinez Egina, Zure Irrifarra Nire Indarra y Marea Urdina. En esta ascensión se realizará un pequeño homenaje al fallecido componente de Artarrai Javi Alberdi, en el lugar donde se plantó un árbol en su recuerdo.

Desde la organización hacen hincapié en que «no es una competición. El objetivo más importante es dar visibilidad a las personas que sufren enfermedades denominadas raras y apoyarles, tanto a ellas como a sus familias y lograr que se investiguen para mejorar la calidad de vida de estas personas». Por ello, se cuenta con tickets 'fila 0' y una cuenta bancaria para quien no quiera subir, pero sí colaborar. El importe de las donaciones irá a la asociación para la investigación de la enfermedad de Hugo.

## TELÉFONOS DE INTERÉS

* EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

**URGENCIAS**

| | |
|---|---|
| SOS DEIAK | 112 |
| DYA | 943 464 622 |

**HOSPITALES**

| | |
|---|---|
| Hospital Mendaro | 943 032 800 |
| Ambulatorio de Eibar | 943 032 500 |
| Ambulatorio de Eibar (Torrekua) | 943 032 650 |
| Ambulatorio de Ermua | 943 032 630 |

**POLICÍA MUNICIPAL**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 708 424 |
| Ermua | 943 176 300 |

**ERTZAINTZA**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 531 700 |

**BOMBEROS** Toda la provincia 112

**TRANSPORTES**

| | |
|---|---|
| Euskotren | 944 333 333 |
| Pesa Eibar | 900 121 400 |
| Bizkaibus | 946 125 555 |

**TAXIS**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 203 071 |
| Ermua | 943 171 733 |

**AYUNTAMIENTOS**

| | |
|---|---|
| Eibar (Centralita) | 943 708 400 |
| Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora) | 010 |
| Ermua | 943 179 010 |

## CARTELERA DE CINE

### EIBAR

**COLISEO** Merkatu Kalea, 2

| | | |
|---|---|---|
| As neves V.O.S.E | | 20.00 |
| Furiosa: De la saga Mad Max | 17.00 | 20.00 |
| Hasta el fin del mundo | 17.00 | 20.00 |
| Lagunak, erreskatera! | 17.00 | |

### ERMUA

**ERMUA ANTZOKIA** Iparragirre, s/n

No hay función

## COMUNICACIONES

### AUTOBUSES

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 06.10*, 06.40*, 07.10*, 07.40, 08.10, 08.45*, 09.15*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13:15*, 18.10*, 19.10*.
Sábados: 6.40*, 7.10*, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 20.10 cada hora, 13.15*, 15.10*, 16.10*, 18.10*, 19.10*, 20.10*, 21.30.
Domingos y festivos: 8.10, 10.10*, 12.10, 13.10, 15.10*, 17.10, 18.10, 19.10* y 21.45*.
*Salida desde Ermua diez minutos antes

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 14.20 cada hora, 11.20*, 14.30*, 15.20*, 16.20*, de 18.20* a 22.20* cada hora.
Sábados: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 21.20* cada hora, 11.20*, 14.20*, 16.20*, 17.20*, 18.20*, 19.20* y 22.35*.
Domingos y festivos: 9.20*, 11.20*, 13.20, 14.20*, 16.20, de 18.20* a 20.20* cada hora, y 22.20*.
*Llegada a Ermua

**EIBAR-BILBAO** (Autopista)

De lunes a viernes: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Sábados, domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

**BILBAO-EIBAR** (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada hora.
Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada hora.

**EIBAR-VITORIA**

Laborables: 6.25, 6.40, 6. 55 y de 7.30 a 22.30 cada hora.
Festivos: De 6.30 a 22.30 cada hora.

**VITORIA-EIBAR**

Laborables: 6.15, 7.00, 7.15, 7.45 y de 8.15 22.15 cada hora, 22.40 (sólo viernes).
Festivos: De 6.15 a 22.15 cada hora.

**EIBAR-ARRATE**

Laborables: No disponible.
Sábados: 14.00
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 13.00 y 18.00.

**ARRATE-EIBAR**

Laborables: No disponible.
Sábados: 14.30
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 13.30 y 18.30.

**EIBAR-ELGETA**

Laborables: 6.30, 8.30,11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30.
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30, 18.30 y 20.30.

**ELGETA-EIBAR**

Laborables: 6.50, 8.50,11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50.
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50, 18.50 y 20.50.

**EIBAR-HOSPITAL MENDARO**

Laborables: 6.10, de 7.05 a 21.45 cada veinte minutos, y 22.15.
Sábados: De 7.00 a 22.00 cada hora.
Domingos: 7.20, de 8.00 a 21.00 cada hora, y 22.15.

**HOSPITAL MENDARO-EIBAR**

Laborables: 6.15, 6.50, 7.10, 7.20, de 7.50 a 21.10 cada veinte minutos, 22.05, 22.25 y 22.55.
Sábados y festivos: De 6.45 a 20.45 cada hora, 22.05 y 22.25.

### TRENES

**BILBAO-EIBAR**

Laborables: 5.55. Diario: (De 6.55 a 20.55 cada hora), 9.34 y 20.34.
Sábado noche: 23.45, 1.45, 3.45 y 5.45.

**EIBAR-BILBAO**

Laborables: 7.09 y 8.09. Diario: (De 9.09 a 22.09 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.06, 4.06, 6.02 y 7.30.

**ERMUA-BILBAO**

Laborables: 7.18 y 8.18. Diario: De 9.18 a 22.18 cada hora.

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 5.50 y 6.50. Diario: De 7.50 a 20.50 cada hora, 9.20 y 20.20.

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 6.06 y 7.06. Diario: De 8.06 a 21.06 cada hora, 10.35 y 21.35.

## FARMACIAS

**EIBAR**

De 9.00 a 22.00: Morgado (San Agustín kalea, 3).

**ERMUA**

De 9.00 a 22.00: Alves Santos (Avda. Gipuzkoa, 46).

**EIBAR-ERMUA**

Noche. De 22.00 a 9.00: Lekunberri Alberdi (Isasi, 31, Eibar).

EGUNEKO GAIA **05** BERA BERA, LIGAKO TXAPELDUN

# Bera Bera Orkestra Sinfonikoak hirugarren instrumentua gehitu du

Super Amara Bera Berak Liga eskuratu zuen atzo, Elxen, denboraldi bikainari agur esateko; Iberiar Superkopa eta «etxeko» Kopa ere irabazi baititu aurten. Donostiarrek agur goxoa egin ahal izan zieten taldea utziko duten zenbait jokalariri: Maddi Aalla –partidatzarra berea– eta Alice Fernandes atezainak, Mariane Fernandes, Malena Cavo, June Loidi, Emma Boada eta Lydia Blanco.

| | |
|---|---|
| **ELX** | **27** |
| **BERA BERA** | **27** |

**Elx:** Nicole Morales (1); Do Nascimento (2), Flores (1), Wolfs (3), Bernabe (1), Mendez eta Oppendal (2) -zazpikoa-, Danila So Delgado (7, 1p), Van Zijl (2), Zhukova, Benitez (4), Gasco (2), Guilabert (2), Carratu (ps), Andreu eta Rosa. **Bera Bera:** Aalla; Etxeberria (2), Mariane Fernandes (3), Lindie Tchaptchet (7), Laura Hernandez (1), Boada (2p) eta Arrojeria (2) -zazpikoa- Gavilan, (1) Alice Fernandes (ps), Alba Menendez (1), Cavo, Karsten, Carmen Arroyo (5, 4p), Loidi, Lydia Blanco (1) eta Erauskin (2). **Partzialak:** 1-2, 3-4, 6-7, 8-7, 12-9, 15-11; 17-13, 20-16, 23-19, 23-21, 23-25 eta 27-27.




Alba Menendez Super Amara Bera Berako kapitaina, garaikurra altxatzen taldekideak ospatzen daudela. AGENCIA LOF

**Imanol CARRILLO** | DONOSTIA

2023ko irailaren 9a: Iberiar Superkopa. 2024ko maiatzaren 12a: Kopa. 2024ko ekainaren 1a: Liga. Super Amara Bera Beraren denboraldia hiru lorpen hauekin laburbildu liteke. Baina ez. Saria, garaipena, txapeldun izatea atzetik egiten den lan gogor eta handi baten emaitza besterik ez da. Eta horretan, donostiarrak hiru aldiz dira merezitako txapeldun. Hurrengo orrialdeko publizitatea erreferentzia bezala hartuta, esan dezakegu Super Amara Bera Berak Orkestra Sinfoniko bat bezala funtzionatu duela sasoi honetan eta, tripletea lortuta, beste hiru instrumentu bereganatu dituela etorkizunean musika ederra egiten jarraitzeko.

Gauzak nola diren. Iaz, Bera Berak lider bezala amaitu zuen liga erregularra, 22 partidetan 19 garaipen, berdinketa bat eta bi porrot eskuratuz. Baina ondoren, play-offetan, finalerdietan geratu zen kanporatuta Elx atzoko aurkariaren aurka. Aurten, ordea, donostiarrek hirugarren amaitu dute lehen fasea, 16 garaipen, lau berdinketa eta bi porrotekin. Baina, iaz ez bezala, aurten, momentu garrantzitsuenetan bere benetako maila ematen jakin dute. Hortxe dago adibidea: Superkopan penaltietan irabazi bazuten ere, "etxeko" Kopan aurkarien gainetik pasa ziren eta orain Ligan gauza bera egin dute. Iazko arantza kentzea lortu dute, eta nola!

**BEDERATZI LIGA**

**Atzo Elxen lortzutakoarekin, Super Amara Bera Berak bederatzi Liga irabazi ditu. Azken bost urteetan lortzen duen laugarrena da. Hortxe ikusten da klubaren lana eta jokalarien kalitate eta esfortzua.**

Gainera, etapa bikain baten amaiera izan daitekeela esan liteke. Izan ere, jakina da taldeko zenbait jokalarik ez dutela datorren denboraldian Donostian jarraituko: Maddi Aalla –Gorlizkoak sekulako partida egin zuen eta bere azken geldiketak luzapena ekidin zuen– eta Alice Silva atezainekin hasi, Mariane Fernandes brasildarra eta Malena Cavo argentinarrekin jarraituz, eta June Loidi elgoibartarra, Emma Boada katalana eta Lydia Blanco kantabriarrarekin amaituz.

Jokalari batek, bere ibilbidean zehar agur hoberik ez luke izango. Hauek guztiek euren profesionaltasuna erakutsi dute pistan eta lasai asko esango dute agur.

**Elx, ezer ez galtzeko** Atzoko neurketan Bera Berak abantaila zuen, joanekoan, etxean, 30-26 irabazi baitzuen. Hala ere, sistema berri honekin, lau goleko errenta horrek ez zuen beste urteetan izan zezakeen indarra. Izan ere, Elxek irabazi izan balu –berdin zuen zenbateko abantailarekin–, luzapena behartuko zukeen.

Donostiarrak horren jakitun ziren eta NAIZ Irratirako egindako elkarrizketa batean Maitane Etxeberriak inor baino ederkiago laburbildu zuen taldea zein sentsazioekin abiatu zen Elxera: «Ez goaz lasai, baina bai lasaitasun puntu batekin, galduz gero, luzapena baitugu».

Ezer galtzeko ez zuena Elx zen. EHF European Cup irabaztetik zetorren eta taldeak historia egiten jarraitu nahi zuen




**Bera Berako jokalariak, Elxeraino joandako zaleekin batera Liga ospatzen.** AGENCIA LOF

dobletea lortuz, klubean hamar urte pasa dituen Ekaterina Zhukova bezalako jokalariari agur esateko. Eta lehen zatian oso nabaria izan zen egoera hori pistan. Super Amara Bera Berak, oso arraroa bada ere, baloi ugari galdu zituen –bost lehen zatian–, eta Mariane Fernandes ez zen oso fin ibili jaurtiketetan. Egia da brasildarrak 0-2koa ipini zuela goltzar batekin bere taldea pasiboarekin jokatzen ari zenean, baina minutuak aurrera egin ahala, ez zen hain fin ibili. Eskerrak atean Maddi Aallak bost geldiketa egin zituen lehenengo ordu erdian bere taldeari eusteko. Eta adi bizkaitarraren bigarren zatiari.

Baina lehen zatian, orokorrean, Elx hobeto aritu zen. Arrazoi nagusiak bi izan ziren: Danila Patricia So Delgado –5 gol egin zituen lehen ordu erdian– eta Nicole Morales atezaina –9 geldiketekin–. Katalanak era guztietan atera zuen baloia, Bera Berako jokalariak desesperatzera helduz (atsedenaldira 15-11 iritsi ziren).




**Maddi Aalla atezaina, atzoko protagonista nabarmenetako bat, geldiketa bat ospatzen.** AGENCIA LOF

**Orkestraren afinazioa** Bigarren zatian emozioak borborka aritu ziren alde batera eta bestera. Imanol Alvarezek minutuak eman nahi izan zizkion atean taldea utziko duen Alice Silvari. Baina atzokoan protagonistak beste bi atezainak izan ziren. Elxen, Nicole Moralesek sekulako lana egin zuen donostiarren golak saihesteko, eta 14 geldiketekin amaitu zuen norgehiagoka.

Talde gipuzkoarrak, ordea, ez zuen amore eman, eta eskerrak. Carmen Arroyok oso ondo eutsi zion taldeari, penaltiz lau gol sartuta (23-20), eta tartean Bera Berak 0-7ko partzial bat sinatu zuen markagailuari buelta emateko (23-25).

Orduan iritsi ziren denboraldiko azken partidako minuturik onenak, edo emozio gehienekoak behintzat. Super Amara Bera Bera utziko duten jokalariek ez zuten hutsik egin golarekin. Mariane Fernandesek, adibidez, azkenean asmatu egin zuen ate aurrean; Lydia Blancok ere zapore gozoarekin esan nahi izan zion agur klubari –23-24koa eta 23-25ekoa bereak izan ziren, adibidez–.

Taldea utzi ez, baina Maitane Etxeberria, Alba Menendez, Lyndie Tchaptchet –7 gol sartu zituen nafarrak–, Anne Erauskin, Elke Karsten, Esther Arrojeria, Laura Hernandez edo Giuliana Gavilan bezalako jokalariek ere euren zigilua eta esfortzua utzi zuten, gehienbat Pipy Wolfs aurkariak 26-26 eta 27-27koa egin zituenean.

Imanol Alvarez orkestrako zuzendariak dena ondo prestatu, jokalariek ondo afinatu eta Elxen azken jaurtiketan, ia denbora agortuta, musika ederrena jo zuen Maddi Aallak, historian geratuko den sekulako geldiketa eginda. Zorionak!

**SUSPERTZEA**

**Talde donostiarra sei goleko aldearekin joan zen galtzen. Honek luzapena behartzen zuen, baina orduan etorri zen suspertzea eta, 0-7ko partzial bat lortuz, nahiz eta azkenean berdindu, titulua etxera ekartzea lortu zuten.**



# Hiru hortz dituen koroa preziatua

→ Donostiako taldeak bere historiako bederatzigarren garaikurra eskuratu du Espainiako Ohorezko Mailan.

→ Berdindu egin du Elxen aurkako finalaren itzulerako partida, eta joanekoa irabazi izanak ziurtatu dio titulua.




**TXAPELDUNAK.** Bera Berako jokalariak, Ohorezko Ligako garaikurra altxatzen. PABLO MIRANZO / EFE

## Bartzelonak 32-28 menderatu du Bidasoa

**● Ametsetik urruti gelditu zen Bidasoa Irun atzo, Jaenen (Espainia), Bartzelonaren aurka jokatu zuen Espainiako Kopako finalerdian. Bidasoak gaizki hasi zuen partida, eta kataluniarrak, berriz, sendo kantxaratu ziren, eta berehala hautsi zuten partida. 16-6 aurreratu ziren, eta 20-13 joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian ahaleginak egin zituen Bidasoak, eta hiru golera murriztu zuen aldea. Baina Bartzelonak ondo eutsi zion aldeari, eta 32-28 amaitu zen neurketa. Gaur jokatuko da Kopako finala, Bartzelonaren eta Torrelavegaren artean (18:00, Teledeporte).**

**27 — 27**

ELX — BERA BERA

Jon Ander de la Hoz

Bera Berak lortu du helburua: hiru hortzeko koroa eskuratuta amaitu du denboraldia. Espainiako Kopan eta Superkopan nola, Donostiako taldea gailendu egin da Ohorezko Mailan ere, atzo Elx finalean menderatuta. Joaneko partida irabazita eta itzulerakoa berdinduta (27-27), bere historiako bederatzigarren garaikurra eskuratu dute donostiarrek ligan.

Imanol Alvarezen taldea maldan gora aritu zen finalaren itzulerako neurketaren zatirik handienean. Aurkaria indartsu hasi zen, eta aldea lortu zuen. Bera Berak tartea murriztu zuen partidak aurrera egin ahala, eta norgehiagoka irauli zuen gero. Azken minutuetan lehia orekatu arren, egoera kudeatuta dastatu zuen loria, berdinketa baliatuta (27-27). Joaneko partida irabazi izanak gipuzkoarren aldera bota zuen balantza.

Golen aldea ez da aintzat hartu azken fasean, ezta finalean ere. Hortaz, azken minutuetara artean markagailua berdindu samar egoteak bizitu egin zuen emozioa. Gol bat gora-behera zegoen garaikurra arauzko denboran eskuratzea, edo luzapena jokatu beharra. Azkenerako, ez zuen halakorik behar izan.

Hori bai, atzokoan luze gabe azaldu zen denbora gehigarriaren mamua. Elxek bizi ekin zion norgehiagokari, irabazteko premia gorria baitzuen. Arauzko denboran eta luzapenean nagusitzeak soilik balio zion. Hala, erritmo bizia ezarri zion neurketari, lerro artean bizi arituta, eta segituan lortu zuen abantaila markagailuan. Etxekoen jokoa erauntsi baten parekoa izan zen lehen zatian; akatsik ez erasoan, eta sendo defentsan. Aldiz, Bera Berari kosta egin zitzaion kontrarioari neurria hartzea; Elx, zaleek hauspotuta, goseti atera zen pistara, eta donostiarren jokoaren joskurak haustekotan izan ziren zenbait unetan.

> «Inork ez zuen espero hiru lehiaketak irabaztea. Sufritutako garaipena izan da, baina aho zapore bikaina du»
>
> **ALBA MENENDEZ**
> Bera Berako kapitaina

Herrialde Katalanetakoek estu hartu zuen Bera Beraren atzeko lerroa. Lehen erdian, lanak izan zituen Maddi Aalla atezainak, zeina gerora funtsezkoa izan baitzen. Azken norgehiagoka zuen talde urdinarekin, beste zenbait jokalarik bezalaxe, eta funtsezko gelditketak egin zituen bigarren zatian.

Partidak itxura eskasa hartu zuen Bera Berarentzat. Nahi baino gehiagotan galdu zuen baloia lehen zatian, lau alditan ihes egin zion baloiaren jabetzak. Halaber, etxekoen erasoko jokoak min egin zion, eta segituan zabaldu zen bien arteko aldea. Elx lau golen aldearekin joan zen atsedenaldira (15-11).

### Bigarrenean, susperraldia

Finalaren joaneko partidan nola, itzulerakoan ere bikaina izan zen Bera Beraren bigarren zatia. Elxek aldea handitu zuen jokoa berrabirazi orduko, baina bost goleko tarte hori gutxika-gutxika murriztu zuten Alvarezen jokalariek. Emma Boada, Mariane Fernandes, Lyndie Txaptxet... eta Maddi Aalla. Plentzitarraren jarduna ezinbestekoa izan zen aurkariaren ekinaldiak ezerezteko.

Horri eta jokalarien suspertzeari esker, Bera Berak estu hartu zuen Elx. Fernandesek berdintzeko bidean jarri zituen donostiarrak, 47. minutuan (23-21). Bidebietakoek ez zuten amore eman; posible zen garaikurra arauzko denboran erdiestea. Zer esanik ez 51. minutuan gol bakarrera kokatzean, eta minutu bat geroago neurketa orekatzean. Aurrea ere hartu zuen Bera Berak. Ordea, ordutik amaierara artean lehia zabal-zabalik egon zen; gol bat gora-behera, aukera guztiak ziren posible. Azkenerako, Alvarezen taldeak egindako esfortzuaren saria jaso zuen, eta, neurketa berdinduta, garaikurra altxatu zuen Alba Menendez kapitainak. Pozik agertu zen garaikurra altxatu ostean: «Urtarrilean inork ez zuen espero hiru lehiaketak irabaztea. Sufritutako garaipena izan da, baina aho zapore bikaina du». ●